

Terrorismoaren Biktimen
Partaidetzarako Euskal Kontseilua

Terrorismoaren biktimen errekonozimenduaren eta erreparazioaren

arloan egin beharreko urratsak,
biktima horien ekarpena hobetzea
eta eraginkorrago egitea ere helburu
dutenak, hala hezkuntzaren arloan nola
iraganari buruzko hausnarketa kritikoko
prozesuetan eta, oro har, desberdinen
arteko elkarrizketan

Laburpen

Euskadi, auzolana, bien común

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES





Terrorismoaren Biktimen Partaidetzarako Euskal Kontseilua

Terrorismoaren Biktimen Partaidetzarako Euskal Kontseiluak 2017tik 2020ra bitartean izandako eztabaidaren emaitza dira *“terrorismoaren biktimen errekonozimenduaren eta erreparazioaren arloan eman beharreko urratsak, bai eta biktima horiek hezkuntzaren arloan eta iraganari buruzko gogoeta kritikoa egiteko prozesuetan eta, oro har, desberdinen arteko elkarriketan egindako ekarpena hobetzeko eta eraginkorragoa izateko eman beharreko urratsak ere”*. Hona hemen, laburbilduta, 2020ko abenduan egindako bileran ateratako ondorioak, 2020an onartutakoak.

Aldez aurretik, Kontseiluak argitu du, “Biktimak eta terrorismoa” aipatzen dituenean, lehenik eta behin, ETA eta antzeko beste erakunde batzuei buruz hitz egiten ari dela, baina baita GAL, BVE, GAE eta antzeko erakundeei buruz ere. Nolanahi ere, baztertu egingo da giza eskubideen urraketa batzuen edo biktima batzuen biktimizazioen edo tresnen nahaste oro, beste batzuk justifikatu, konpentsatu, diluitu edo minimizatzeko.

Lau dira Terrorismoaren Biktimen Partaidetzarako Euskal Kontseiluak onartutako ondorioen funtsezko ardatzak:

I. Terrorismoaren biktimen aitortza eta erreparazioa

II. Biktimen hezkuntza-ekarpena

III. Biktimak eta iraganari buruzko hausnarketa kritikoko prozesuak

IV. Biktimak eta desberdinen arteko elkarriketa-prozesuak

Funtsezko ardatzak

I. Terrorismoaren biktimen errekonozimendua eta erreparazioa

Terrorismoaren Biktimen Partaidetzarako Euskal Kontseiluak balorazio positiboa egiten du **terrorismoaren biktimen errekonozimenduaren eta erreparazioaren** arloan egindakoari buruz, nahiz eta gabeziak izan, eta zeregin horretan jarraitzeko beharra azpimarratzen du:

- Erakunde terroristen (GAL, BVE, GAE eta antzeko erakundeak) eta, bereziki, ETA erakundearen indarkeriak eragin duenaren balorazio argi eta kritikoa egiteko.
- Terrorismoaren biktima guztiei errekonozimendua eta ordaina emateko legeen edukiak osatuz eta hobetuz;
- Biktimizazio horren eta biktimek jasandako sufrimenduaren ezagutza eta aitortza sakonduz, dagozkion azterketen bidez.

Ilido horretan, honako hau proposatzen da:

- Eusko Legebiltzarrak aztertzea eta baloratzea terrorismoaren biktimen euskal legegaren erreforma, hobeto egokitu dadin errealitate berrira eta nazioarteko terrorismoaren forma berrietara.
- Tokiko eremuan, biktimen oroitzapenaren aldarrikapenari erantzuteko moduari buruzko akordioak sustatzea, atentatuak gertatu diren lekuak seinaleztatzea barne, betiere eragindako biktimen adostasuna eta udal-adostasun nahikoa badago.
- Halaber, beharrezkotzat jotzen da:
 - Errekonozimendu- edo erreparazio-gabezia jasaten jarraitzen duten biktimei ematen zaien laguntza indartzea.
 - Egiarako eskubidea indartzea
 - Atentatu terroristaren inguruabarrei buruz dagoen informazio guztia eskuratzeko eskubidea aitortuz, bereziki, baina ez bakarrik, Auzitegi Nazionalaren barruan;
 - Eskura dituztenek datuak eta informazioak ematea erraztuko duten bideak irekitzea.
 - Biktimei aitortzen pertsonalizatua emateko neurriak bultzatzea:
 - Lekukotasunak grabatzen jarraitzea, Gogora Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuan artxibatze eta Terrorismoaren Biktimen Memoriala egiteko.
 - Keinu instituzional pertsonalizatu baten garapena sustatzea: zehazki, biktima bakoitzari eta haien familiei dokumentu bat ematea, jasandako bidegabekeriaren eta hura kokatu zen egia historikoaren adierazpen ofiziala egiteko.

II. Biktimen hezkuntza-ekarpena

Biktimen hezkuntza-ekarpenari dagokionez – ondorioen bigarren ardatza –, Terrorismoaren Biktimen Partaidetzarako Euskal Kontseilua ere bat dator biktimek hezkuntzan dituzten lekukotasunen esperientziaren balorazio positiboarekin, beste esparru batzuetara zabaltzea beharko litzatekeela uste baitu.

Nolanahi ere, *Adi-adian* biktima hezitzaileen programari dagokionez, honako hau proposatzen da:

- Hezkuntzaren, unibertsitatearen, lanbide-heziketaren eta beste hezkuntza-esparru ez-formal batzuen arloan garatzen jarraitzea.
- Biktimek lekukotasunak emateko aukerak zabaltzea, betiere askatasunez eta borondatez.
 - Edo Gogora Institutuan utzitako grabazioen bidez, haren bidez eskura daitezkeenak;
 - Edo honako hauei zabalduz:
 - Biktimen seme-alabak eta bilobak
 - Beste biktima batzuk: zaurituak eta/edo mehatxatuak, jazarpen-indarkeriaren biktimak.
 - Bai eta, indarkeria erabili ondoren, beren iraganari eta helburu politikoekin indarkeria baliatzeari buruzko hausnarketa autokritiko sakona egin duten pertsonak ere.
 - Esperientzia honen potentzialtasuna aztertzea, sortzen ari diren terrorismoaren eta indarkeriaren beste fenomeno batzuei eta, bereziki, erlijio-kutsuko integrismo erradikalari hezkuntza- eta prebentzio-izaerarekin heltzeko.

III. Biktimak eta iraganari buruzko hausnarketa kritikoko prozesuak

Biktimak eta iraganari buruzko hausnarketa kritikoko prozesuak da Terrorismoaren Biktimen Partaidetzarako Euskal Kontseiluaren ondorioen hirugarren ardatzaren izenburua.

Biktima bakoitzaren beharrei arreta berezia eskainiz, guztiek ez baitute erantzun bera eskatzen, Kontseiluak honako urrats espezifiko hauek proposatzen ditu:

- Erreparazio errestitutibo esperientziak babestea;
- Biktimen eta biktimagileen arteko topaketak erraztuko dituzten espazioak sortzea, betiere biktimen autonomia eta askatasuna ahalik eta gehien errespetatuz eta aurrez bermatuta bilera horiek biktimari kalte material edo moral gehiago eragin ezin diezaioketela;
- Memoria-jardueretan leheneratze-ildoak sustatzea. Eremu horretan, biktimen testigantzak erabakigarria izaten jarraitzen du, eta, Kontseiluaren iritziz, erakunde publikoek honako hauek egin behar dituzte:

-
- Biktimak lehen pertsonan gizartera hurbiltzeko programen garapena sustatzen jarraitzea.
 - Iragana argitzeko txostenak egiten jarraitzea, egia jakiteko eskubideari laguntzeko.
 - Lekukotasunen erabilera sustatzea DBHko eta Batxilergoko unitate didaktikoen tresna gisa.
 - Gizarte osora – Bizikidetzarako eta ez errepikatzeko duen funtsezko balioetatik – Eta, bereziki, belaunaldi berrietara zabaltzeko behar dela bermatzea.

IV. Biktimak eta desberdinen arteko elkarriketa-prozesuak

Azkenik, **biktimen eta desberdinen arteko elkarriketa-prozesuak** arloan, Terrorismoaren Biktimen Partaidetzarako Euskal Kontseiluak guztiz bat egiten du bakearen kultura sustatzeko behararekin, kultura hori balio-multzo sendo batean eta gatazkak konpontzeko tresna gisa elkarriketa sustatzean oinarritzen baita.

Horretarako, Kontseiluaren iritziz, aurrera egin behar da indarkeria terroristari zilegitasuna kentzen, biktimak eragin zituen indarkeriazko ekintza oro bidegabekeria bat izan zela aitortu behar baita, etikoki, gutxienez.

Aurrekotik abiatuta, hainbat norabidetako elkarriketa sustatu beharko litzateke:

- Terrorismo beraren biktimen artean, egoerak oso desberdinak dira eta pentsamoldeak oso desberdinak.
- ETAren terrorismoaren biktimen eta beste terrorismo mota batzuen biktimen artean, GAL, BVE, GAE eta antzeko erakundeen artean.
- Biktimen eta gizartearen artean, etorkizuneko belaunaldiak bereziki gogoan izanda.

Azken hausnarketa, etorkizunari begira

Dokumentua amaitzeko, “**Etorkizunari begirako azken hausnarketa**” egin da.

Bertan, iraganari bizkarra emateko jarrera oro gaitzetsiz, Kontseiluak defendatzen du ezinbestekoa den hausnarketa kritiko hori sustatu behar dela, biktimizekiko jarrerari bizi izandako sektarismoa aitortzeko, gaur egun ere jarrera horrek jarraitzen baitu, nolabait.

Eta, gizaki gisa denok dugun duintasuna aitortu gabe bizikidetzaren baketsuaren oinarririk ez dagoenez, premiazkoa da lehenbailehen desagerraraztea, bai terrorismo-mota guztiak justifikatzea, bai terroristei omenaldi publikoak egitea eta haien sinboloak go-raipatzea: bereziki arbuiagarriak diren “bigarren mailako biktimizazioa”, “birtraumatizazioa” edo “berriz biktimizatzea”, zeinak anormaltasun demokratikoaren sintoma argiak dira, indarkeria terroristaren bidegabekeria aitortzen duen gizarte batean.

Euskadi, auzolana, bien común

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES

